Arrigorriagako Udal Euskaltegia

2026-2027 ikasturteko egitasmoa

AURKIBIDEA

Orrialdea

1.- Sarrera..... 2

1.1.- Identifikazio datuak 2

2.- Baliabideak 3

2.1.- Giza baliabideak 3

2.2.- Diru baliabideak 4

2.3.- Beste baliabideak 4

3.- Ikasturteari buruzko informazioa..... 5

3.1.- Taldeak 5

3.2.- Ikasleak eta irakasleak 6

3.3.- Eskola eta ebaluazio egutegiak..... 7

4.- Egoeraren diagnosia..... 9

4.1.- Ikasturtearen balorazioa..... 9

4.2.- 2025-2026 ikasturtearen memoriaren datuak. AMIA... 11

5.- Ikasturterako planifikazioa eta ebaluazioa..... 12

5.1.- Helburuak 13

1.- SARRERA

Euskara pauso batera da aurten Udal Euskaltegion leloa. Hau da, euskara ikastea hurbil, bertan dagoela adierazi nahi da, eta horixe da Arrigorriagako Udal Euskaltegia helarazten saiatzen dena: tratu zuzena, irisgarria, eta euskara ikastea lorgarria, erreala.

Horretan ari gara azken 40 urteotan, hurbiltzen zaizkigun guztiei euskara egunerokotasunera hurbiltzen.

Horri begira berraztertu eta egokitzen dugu ECPa eta horri begira osatu dugu egitasmo hau gure erronka bertan adierazitakoa geletara eramatea izanik.

1.1.- IDENTIFIKAZIO DATUAK

- Arrigorriagako Udal Euskaltegia
- Kodea: 246
- Urgoiti pasealekua 55, 2.a
- Telefonoak: 94 400 20 60 / 94 402 02 11
- Posta elektronikoa: bulegoa@arrigorriagakoeuskaltegia.eus
- www.arrigorriagakoeuskaltegia.eus

2.- BALIABIDEAK

2.1.- GIZA BALIABIDEAK

Langileen organigrama honako hau da:



EGITURA DIDAKTIKOA

2026-2027 ikasturtean ardura didaktikoak honelaxe geratu dira banatuta:



2.2.- DIRU BALIABIDEAK

2027. urteko aurrekontua egiterakoan hurrengo irizpideok hartu beharko lirateke kontuan:

GASTUAK:

- Pertsonal gastuetan %5,5eko igoera.
- Gastu arruntak aurreko urtean bezala.

SARRERAK:

- HABEk, 2026-2027 ikasturtean, udal euskaltegien finantzazio berria aplikatuko du, hau da, jardun unitate bakoitzeko 81 euro; beraz, 990 ordu emanda 80.190 eurokoa aurreikusten da HABEren diru-laguntza.

- Ikasleen matrikuletatik jasoko den diru kopurua askoz txikiagoa aurreikusten da, ikasle kopuruaren beherakada handia izan baita.

2.3.- BESTE BALIABIDEAK

Berraztertuko dugu ikasleentzako mahai eta aulki batzuk erostea, eta euskaltegia pintatzeko beharra ikusten dugunez, hori proposatu eta eskatuko diogu udalari.

3.- IKASTURTEARI BURUZKO INFORMAZIOA

3.1.- TALDEAK

2026-2027 ikasturte hasierako datuak hurrengoak dira:

*Taldeak *Mailak * Moduluak * Orduak

Taldea	Lokala	Maila	Modulua	Ordutegia	Ordu teorikoak	Has./Buk.-data	Ikasle kopurua
1	1	B2B1	10/9/10/	09:30-12:00	330	2026/10/01-2027/06/30	8
2	1	B2B1	10/9/10/	16:30-19:00	330	2026/10/01-2027/06/30	10
3	1	C1B2	10/9/10/	16:30-19:00	330	2026/10/01-2027/06/30	9
					990		**27**

Honako hauek dira urritik ekainera bitartean, aurrez aurreko taldeetan euskaltegiak emango dituen eskola orduak, aurreko ikasturteetan emandakoekin alderatuta:



Talde arruntei dagokienez, iazko eskaintza ia berbera egin dugu: A1 eta A2ko taldeetan 250 orduko moduluak; B1, B2 eta C1 mailetakoetan 330 ordukoak eta D ereduan ikasitako gazteei zuzendutako C1 mailan 165 ordukoa. Autoikaskuntza, ostera, ez dugu eskaini.
Xede berezietako taldeak sortze aldera, aurten ere jubilatuei 60 orduko ikastaroak eskaini dizkiegu.

Ikasturte honetan 330 orduko hiru talde (B2 eta C1), 250 orduko bi talde (A1 eta A2), 165 orduko talde bat (C1), eta 60 orduko 4 talde (A1 eta A2) osatu ditugu. Alegia, iaz baino talde bat gehiago. Kontua da iaz baino irakasle bat gutxiago gaudela, eta guk eman ezin ditugun orduak euskaltegi pribatu bati, Ulibarriri hain zuzen, pasatzea erabaki duela udalak.
Ondorioz, Arrigorriagako Udal Euskaltegiak 990 ordu ematea aurreikusten ditugu, eta ordu horiek emateko bi irakasle (irakasle bat eta zuzendaria) arituko gara.

Aurten, azken ikasturteotan ez bezala, ikasle portzentajerik handiena (%75) arratsaldean etorriko da euskaltegira eta gutxiago dira goizean etorriko direnak (%25).

Eskolak emateaz gain, Berbalagun egitasmoa ere euskaltegiaren egitekoa da eta aurten 23 kidek hartuko dute parte 2 taldetan banatuta, bata goizez eta bestea arratsaldez.

3.2.- IKASLEAK ETA IRAKASLEAK

Ondoko taulan 2026-2027 ikasturteko taldeak, ikasle kopurua eta irakasleak ageri dira.

TALDEAK

Mailak → Ordutegia ↓	**B2**	**C1**
09:30-12:00	Goikoana Gaztaka (8)	
16:30-19:00	Goikoana Gaztaka (10)	Itziar Arteagoitia (9)

BERBALAGUN

Astegunak → Ordutegia ↓	**Astelehena**	**Asteazkena**
12:00-13:00		Goikoana eta Itziar (9)
19:00-20:00	Goikoana (12)	

Irakasleon ohiko lanaldia astean 35 ordukoa da eta eskola orduei dagokienez, 20 ordukoa (zuzendariarena 10ekoa). Aipatu bezala, euskaltegiko lanaz gain, Berbalagun programan sortu diren 2 taldeak ere irakasleok koordinatu eta kudeatuko ditugu. Baldintza horiek abiapuntu hartuta egin dugu talde eta orduen banaketa.

3.3.- ESKOLA ETA EBALUAZIO EGUTEGIAK

2026-2027 ikasturterako **ESKOLA EGUTEGIA** honako hau da:



Hona hemen talde guztien eskola egunak:

Ikastaro	Hasiera	Amaiera	Eskola-egunak						Hasiera-	Amaiera-	Talde
modulua	eguna	eguna	al.	as.	az.	og.	or.	lr.	ordua	ordua	zenbakiak
10/9/10	2026/10/01	2027/06/30	X	X	X	X	☐	☐	09:30	12:00	1
10/9/10	2026/10/01	2027/06/30	X	X	X	X	☐	☐	16:30	19:00	2
10/9/10	2026/10/01	2027/06/30	X	X	X	X	☐	☐	16:30	19:00	3

EBALUAZIOA

Ebaluazioari dagokionez, hiru ebaluazio egingo ditugu, HEOCen jasota dugun moduan eta HABEren egiaztatzegintza prozesuko irizpideei jarraituz. Honela, ikasturte hasieran ikaslearen abiapuntua zehazteko ebaluazio diagnostikoa egingo dugu; ikasturte erdia pasata, otsailean, tarteko ebaluazioa eta ekainean amaierako ebaluazioa. Dena den, abenduan tutoretza bat egingo diegu ikasle guztiei aurrerapenaren berri emateko eta ikasleen feedbacka jasotzearren.

Hona hemen HABEren eredura egokitutako EBALUAZIO EGUTEGIA:

EUSKALTEGIA	TALDEA	MAILA	ABIAPUNTUAREN EBALUAZIOA	1. EBALUAZIOA	2. EBALUAZIOA
ARRIGORRIAGAKO UE	1	B2B1	2026/10/21	2027/02/26	2027/06/30
ARRIGORRIAGAKO UE	2	B2B1	2026/10/21	2027/02/26	2027/06/30
ARRIGORRIAGAKO UE	3	C1B2	2026/10/21	2027/02/26	2027/06/30

4.- EGOERAREN DIAGNOSIA

4.1.- IKASTURTEAREN BALORAZIOA

Balorazioa hurrengo adierazleak kontuan izanda egin dugu: Ikasleak, ratioa, birmatrikula, eta mailak.



	2022/23	2023/24	2024/25	2025/26	2026/27
Taldeetan	109	130	87	98	27
Autoikaskuntzan	0	0	0	0	0
Guztira	109	130	87	98	27



	2022/23	2023/224	2024/25	2025/26	20256/27
Arrigorriagako UE	9,08	10,83	9,6	10,88	9



	2022/23	2023/24	2024/25	2025/26	2026/27
Arrigorriagako UE	33	36,15	60,92	63,27	50



	2022/23	2023/24	2024/25	2025/26	2026/27
A1 MAILA	46,78	64,63	47,13	31,63	0,00
A2 MAILA	7,33	0	12,64	21,43	0,00
B1 MAILA	14,69	6,15	0	3,06	0,00
B2 MAILA	0	14,61	20,69	18,37	66,67
C1 MAILA	31,2	14,61	19,54	25,51	33,33

Grafiko hauek aztertzean, honako ondorio hauek atera ditzakegu:

Irakasle bat gutxiago garenez gero, iaz baino askoz ikasle gutxiago ditugu, eta inoiz baino gutxiago. Udal euskaltegira, ostera, iaz eta orain dela bi urte baino ikasle gehiago hurbildu dira, baina udalak erretiroa hartu duen irakaslearen plaza ez betetzea erabaki du eta Ulibarrik izango du gure 76 bat ikasleren ardura.

Hori dela eta, ulergarria da udal euskaltegiak maila guztietako taldeak ez izatea, ezinezkoa baitzaigu. Dena den, B1 mailako taldea osatzeko arazoak aspaldi ditugu.

Birmatrikula eta ratioari dagokienez, hain talde eta ikasle gutxi izanda ere, ondo eutsi diegu bai ratioari, bai birmatrikula kopuruari.

Aurrerantzean ere euskaltegian bi irakasle bakarrik egonez gero, antzeko datuak izango ditugula pentsa dezakegu.

4.2.- 2025-2026 IKASTURTEKO MEMORIAN JASOTAKO DATUAK. AMIA

	AUKERAK	MEHATXUAK
INGURUNEA	• Oraindik bezero potentzial asko: biztanleriaren %36,33k ez daki euskara (2021eko datuak), eta euskararen erabilera eskasa da. • Euskararen arloan badaude gizartea aktibatzeko errotuta dauden ekintzak (Euskaraldia, Korrika…) • Euskararen ezagutza orokortzeko bidean, doakotasunean aurrerapausoak eman dira. • Euskara lekua hartzen ari da mundu digitalean, hizkuntza gutxitua izan arren.	• Sektoreak ez du ikusgarritasunik, eta etorkizuna kolokan dago. • Euskararen normalizaziorako baliabide ekonomikoak ez dira behar bestekoak. • Herritar guztiek ez dute euskara ikasteko aukera bera, arrazoi ekonomikoak, sozialak edota profesionalak tarteko. • Euskararen erabilera eta balio eskasa gizartean. • Gazteek gehienbat D ereduan ikasten dute eta tituluak eskuratzen dituzte. • Ezagutza/erabilera/egiaztapena. Horien uztarketa zaila.
	INDARGUNEAK	**AHULEZIAK**
EUSKALTEGIA	• Langile profesionalen esperientzia, jakintza metatua eta inplikazio maila altua. • Tasen igoerarik ez, eta langabetuek ezer ez ordaintzea. • Ikasleen asebetetze- maila altua. • Birmatrikula kopurua	• 2026-2027 ikasturtetik aurrera irakasle 2 baino ez. • Eskaintza murriztu behar izatea irakasle gutxiago egoteagatik. • Ikasleen baja kopurua eta asistentzia

5.- IKASTURTERAKO PLANIFIKAZIOA ETA EBALUAZIOA

Arrigorriagako Udal Euskaltegia gero eta txikiagoa da, irakasle finko bakarra du eta behin-behineko bat. PLZn 3 plaza egon arren, irakasle finko batek erretiroa hartu du irailean, eta ez dute inor kontratatuko.

Hori dela eta, urte askoan gure kezka ikasleak lortzea izan bada ere, orain euskaltegi txikiegia bihurtzea da gure kezka nagusia.

Aipatutakoa kontuan izanda, 2026-2027 ikasturterako honako helburu hauek izango ditugu:

HELBURUAK
1. Didaktika mailako etengabeko trebakuntzan jarraitzea, batez ere bitartekotzaren inguruan. 2. Programazioetan genero ikuspegia kontuan hartzen jarraitzea eta desgaitasunen bat duten ikasleentzako materiala egokitzen. 3. Adimen Artifizialaren inguruko ikuspegia eta haren erabilerari buruzko irizpideak zehazteko hausnarketari ekitea. (jarrera: debekatzea, sustatzea edo erabilera jakin batzuetara mugatzea)

5.1.- HELBURUAK

5.1.1.- HELBURUA: Didaktika mailako etengabeko trebakuntzan jarraitzea, batez ere bitartekotzaren inguruan.

PLANIFIKAZIOA

EKINTZAK

- Ahalik eta ikastaro edota mintegi gehien egin
- Elkarlanean jarraitu, didaktika mailako zalantzak argitu eta irizpideak zehaztu
- B2 mailako bitartekotza ereduak eguneroko eskoletan erabili.
- C1 mailako bitartekotza ereduak aztertu eta ikasleekin eskoletan erabiltzen hasi, ikasleak horretan trebatze aldera.

BALIABIDEAK

Pertsonalak:	Materialak:	Funtzionalak:
Irakasleak eta ikasleak	- Programazioak -Ikasleen lanak: jarduerak -Infografiak, kartelak, irudiak, testu idatziak…	- Irakasleon bilerak -Denbora, datuen interpretazioa, sintetizazioa - Tutoretzak

ARDURADUNA

Zuzendaria.

EBALUAZIOA

IRIZPIDEAK

- Irakasleek egindako ikastaro eta mintegi kopurua
- Irakasleek egindako bilerak eta adostutako irizpideak
- Erabilitako eta sortutako bitartekotza eredu kopurua
- Ikasleen feedbacka

TRESNAK

- Erabilitako eta sortutako bitartekotza ereduak
- Ikasleek sortutako bitartekotza testuak: ahoz zein idatzizkoak
- Ikasgelan egindako jardueren inguruko feedbacka

UNEAK

- Ikasturtean zehar

5.1.2.- HELBURUA: Programazioetan genero ikuspegia kontuan hartzen jarraitzea eta desgaitasunen bat duten ikasleentzako materiala egokitzen.

PLANIFIKAZIOA

EKINTZAK

- Gelara eramaten den materiala aztertu eta zuzendu genero ikuspegia.
- Irudien eta hizkuntzaren erabilera inklusiboa egiten saiatu.
- Irakurketa erraza bultzatu ikasleekin erabilitako materialean.
- Eguneroko jardueretan eta azterketetan egokitzapenak eman behar dituzten ikasleei

BALIABIDEAK

Pertsonalak:	Materialak:	Funtzionalak:
Irakasleak eta ikasleak	Erabilitako testuak eta ariketak	Hausnarketa Materialaren azterketa

ARDURADUNA

Zuzendaria

EBALUAZIOA

IRIZPIDEAK

- Zuzendutako testu eta irudien kopurua.
- Jardueretan irakurketa erraza bultzatu den aztertu
- Emakume sortzaileen materiala ikasgelan erabili den aztertu.
- Egokitzapenik eman den aztertu

TRESNAK

- Gelan partekatzen diren materialak: irudiak, testuak, jarduerak…
- Emakumeek sortu eta idatzitako testuak: liburuak, testuak, kantak…
- Egokitzapenak behar dituzten ikasleentzako ebaluazio-irizpideak

UNEAK

- Ikasturtean zehar

5.1.3.- HELBURUA: Adimen Artifizialaren inguruko ikuspegia eta haren erabilerari buruzko irizpideak zehazteko hausnarketari ekitea. (jarrera: debekatzea, sustatzea edo erabilera jakin batzuetara mugatzea)

PLANIFIKAZIOA

EKINTZAK

- Egindako ikastaroetan ikasitakoa eta irakasleon esperientzia partekatu
- Beste ikastarorik egiten saiatu eta eskolak prestatzeko orduan erabiltzen hasteko saiakerak egin (irudiak sortzeko, lexikoa lantzeko edo liburuen lanketarako, besteak beste)
- Erabileraren inguruko hausnarketa egin eta ikasleekin izan beharreko jarrera adostu

BALIABIDEAK

Pertsonalak:	Materialak:	Funtzionalak:
Irakasleak	ChatGPT, Gemini…	Denbora

ARDURADUNA

Zuzendaria

EBALUAZIOA

IRIZPIDEAK

- Egindako bilerak eta adostutako irizpideak
- Egindako ikastaro kopurua
- Sortutako irudi eta jarduera kopurua
- Irakasleen feedbacka

TRESNAK

- Sortutako eta erabilitako irudiak eta jarduerak
- Irakasleen iritzia eta ikasleen feedbacka

UNEAK

- Ikasturtean zehar